



ORTZAIZEKO
HERRIKO
ETXEA
—
MAIRIE
D'OSSÈS

2025-EKO LARRAZKENEKO HIRUHILABETEKARIA

BULLETIN TRIMESTRIEL DE L'AUTOMNE 2025



Les travaux de rénovation d'Arrosategia et de sécurisation des alentours continuent. Le planning prévisionnel est respecté.

De ce fait, tout devrait être opérationnel début janvier 2026. Comme évoqué précédemment, l'école publique aura désormais un espace vert et il y aura un parking à côté du nouveau fronton. Dès la fin des travaux, l'accès aux deux écoles se fera par le parc Arrosategia en toute sécurité.

À Arrosategia, le rez de chaussée accueillera les locaux de la nouvelle Mairie et l'agence communale postale. Au premier étage, quatre locaux seront à louer. Nous souhaitons privilégier le secteur du soin (infirmiers, kiné, ostéopathe, ...). Au dernier étage, un grande salle sera aussi mise à la location pour accueillir divers événements.

ARROSATEGIA

Ikusi dukezue Arrosategia inguruetan lanak untsa badoatzila. Hastapenetik finkatua den egutegia segitua da. Bururaino hala segitzen badute obrek, 2026eko urtarrileko lan gehienek bukatuak behar lukete izan. Jadanik aipatu bezala, kanpoko eremuan, eskola publikoak eremu berde bat eskuratuko du. Plaza berriaren ondoan aparkaleku bat ere izanen da eta bi eskolen sartzeak alde horretatik eginen dira, segurtasun osoz.

Arrosategian, herriko etxea eta posta agentzia beherean izanen dira. Lehen solairuan lau gela izanen dira alokatzeko, ideia dugularik osagarriaren arloari lehentasuna emaita (erizain, kine, osteopatia edo beste). Bigarren estaian gela handi bat izanen da, hau ere alokatzen ahalko dena biltzar nagusi, enpresa bilkura edo beste gisako elgarretaratzeentzat.

PONT DE ZUBIALDEKO ZUBIA

Zubialdeko arraberritze lanak ixtante bururatuak dira. Pasaia idekia dugu, baina gelditzen dira bazterreko xeilak emaitako. Azaro hastapenean emanak izanen dira. Bestalde, urte hondarra aitzin Lasarte eta Xerrendako bide zati batzuk berrituak izanen dira.

Les travaux du pont Zubi Alde touchent à leur fin. Après l'avoir ouvert à la circulation, il ne restera plus que les garde-corps à poser pour un retour à la normale durant la première quinzaine de novembre. Concernant les travaux de voirie, Le programme voirie 2025 concernera des portions de route de lasarteko bidea et de xerrendako bidea.



Anne-Marie eta Francis Bresquek 60 urte ezkonduak !

60 ans de mariage pour Anne-Marie et Francis Bresque !

Anne-Marie Getarian sortu zen eta Francis Angelun. Duela 60 urte ezkondu ziren Angeluko Santa Maria elizan.

Biziko bigarren amodioa ukan zuten gure herri hunendako, eta hemen eraikiarazi zuten etxe bat 1983an, Xerrenda gunean, « Gure kuluxka » deitu zutena.

Baigura hegian, hortik ikus dilaite Jara mendia, eta ederki Ortzaizeko ibarra. Geroztik auzo eta herritarrak egin dituzte lagun.

Eskerrak zuekin pasatu dugun ordu goxoaz !



Natifs de Guéthary pour Anne-Marie et d'Anglet pour Francis, ils s'épousèrent en l'église Sainte Marie d'Anglet voici 60 ans.

Leur deuxième coup de foudre fut pour notre village et ils firent construire leur maison quartier Xerrenda en 1983. Ils l'habitèrent à plein temps à partir de l'an 2000.

Face au Jara et à flanc du Baigura, ils sont toujours sous le charme de notre belle vallée. Ils apprécient leur voisinage mais aussi les liens tissés au fil des ans.

Merci pour ce très agréable moment passé en votre compagnie !

ESKOLEN ARTEKO PROIEKTUA

PROJET INTER-ÉCOLES

Herriko Etxea, Iparraldeko dantzarien biltzarrarekin harremanetan sartu da, eskolen arteko loturen sustatzeko.

Alabaina, erakunde horrek proiektuak eskaintzen dizkie irakasleei. Helburua bikoitza da : haurrei euskal kultura eta dantza ezagutaraztea eta haiekin batera sorkuntza bat gauzatzea. Ikasleek, dantzak ikasteaz gain, euskal dantzaren aberastasuna egiten duten sinboloak, pertsonaien ezaugarriak, ohituren jatorria eta jantziak ezagutzeko parada izanen dute.

Proiektuak, federazioko dantza irakasle eta animatzaile pedagogikoak eramanen ditu, haurren mailaren eta kopuruaren arabera baita ere erakasleen gogoen eta helburu pedagogikoen arabera.

lhauterietaz eta haven sinboloetataz arizan eta eskola ezberdinetan, arratsalde partekatze bat egingen da 2026ko apirilean.

Gora zirtzilak !



La mairie s'est rapprochée de la Fédération de la Danse Basque dans le but de soutenir le lien inter-école au sein du village.

En effet, cet organisme propose aux enseignants des projets d'éducation artistique et culturelle. L'objectif est double: faire découvrir aux enfants la culture et la danse basque et mener avec eux une démarche de création. Les élèves auront non seulement l'occasion d'apprendre des danses, mais ils découvriront aussi les symboles, les caractéristiques des personnages, l'origine des coutumes et costumes qui font la richesse de la danse basque.

Les projets, menés par l'animatrice pédagogique de la fédération seront modulables en fonction du niveau des enfants et de leur nombre et adaptables aux envies et objectifs pédagogiques des enseignants.

Après plusieurs interventions au sein des différentes écoles autour du carnaval et de ses symboles, un après-midi de partage verra le jour en avril 2026.

L'enquête publique portant sur l'élaboration du PLUi se déroulera du **lundi 27 octobre 2025 à 9h, au lundi 1er décembre 2025** inclus à 17h.

Pendant l'enquête publique, le public pourra consulter le dossier d'enquête publique :

- en version papier dans son intégralité au siège de l'enquête: « Maison de la Communauté - Pôle Garazi-Baigorri » Lutxiborda, 64220 Saint-Jean-le-Vieux ; du lundi au vendredi de 8h45 à 12h15 et de 13h30 à 17h.
- en version papier allégée dans les 6 autres lieux de l'enquête :
 - Maison de la Communauté - Pôle Iholdi-Oztibarre à Iholdi
 - Mairies de Larceveau, Saint-Etienne-de-Baigorry, Aldudes, Bidarray, Lecumberry

La version numérique de l'ensemble du dossier sera consultable sur le site internet de la communauté d'agglomération. Pour faciliter la consultation des règles graphiques du projet de PLUi une visionneuse est accessible depuis le site internet de la communauté d'agglomération.

Chacun pourra consigner ses observations et propositions, et les adresser à la commission d'enquête. Un des membres de la commission d'enquête se tiendra à la disposition du public :

- Maison de la Communauté Pôle Garazi-Baigorri le lundi 27 octobre 2025 de 9h à 12h et le lundi 1er décembre 2025 de 14h à 17h
- Maison de la Communauté Pôle Iholdi-Oztibarre le jeudi 13 novembre 2025 de 14h à 17h et le samedi 29 novembre 2025 de 9h à 12h
- Mairie de Saint-Etienne-de-Baigorry le mercredi 29 octobre de 14h à 17h
- Mairie des Aldudes le mardi 4 novembre 2025 de 9h à 12h
- Mairie de Lecumberry le vendredi 7 novembre 2025 de 9h à 12h
- Mairie de Bidarray le samedi 15 novembre de 9h à 12h
- Mairie de Larceveau le vendredi 21 novembre 2025 de 10h à 13h

Le public peut se rendre à la permanence de son choix. L'ensemble des observations devra parvenir au plus tard le 1er décembre 2025 à 17 heures.

Hiriguntza planaren sortzeko inkesta publikoa iraganen da 2025eko urriaren 27tik abenduaren 1a arte.

Inkesta publiko garaian, jendeak inkesta publikoaren txostena begiratzen ahalko du:

- osotasunean paperez, inkestaren egoitzan: « Hiriguneko etxea – Garazi-Baigorri poloa » Lutxiborda, 64220 Donazaharre ; astelehenetik ostiralera 8:45tik 12:15 arte eta de 13:30tik à 17:00 arte.
- paperezko bertsio arinduan inkestaren beste 6 guneeetan:
 - Hiriguneko etxea – Iholdi-Oztibarre poloa Iholdin.
 - Lartabale, Baigorri, Aldude, Bidarraï eta Lekunberriko herriko etxeetan.

Txosten osoaren bertsio numerikoa ikusgai izanen da hiriguneko webgunean. Hirigintza planaren proiektuaren araudi grafikoen kontsulta errexteko, ikusgailu bat begiratzen ahal da hiriguneko internet gunean.

Bakotxak bere oharrak eta proposamenak zerrendatzen ahalko ditu inkesta komisiolari helarazteko gisan.

Inkesta komisioko kide bat jendearen oharren entzuteko hor izanen da:

- Garazi-Baigorriko poloko hiriguneko etxean, urriaren 27an astelehenez 9etatik 12ak arte eta abenduaren 1ean 2etatik 5ak arte.
- Iholdi-Oztibarre poloko hiriguneko etxean, azaroaren 13an ostegunez 2etatik 5etara eta azaroaren 29an ibiakoitzez 9etatik 12ak arte.
- Baigorriko herriko etxean urriaren 29an asteazkenez 2etatik 5ak arte.
- Aldudeko herriko etxean azaroaren 4an asteartez 9etatik 12ak arte.
- Lekunberriko herriko etxean azaroaren 7an ostiralez 9etatik 12ak arte.
- Bidarraiko herriko etxean, azaroaren 15ean ibiakoitzez 9ak eta 12ak artean.
- Lartabaleko herriko etxean, azaroaren 21ean ostiralez 10ak eta oren bata artean.

Bakotxa nahi duen lekura joan daiteke.

Ohar guziak abenduaren 1eko, arratsaldeko 5etako berantenez helarazi beharko dira.

BILTZAR PUBLIKOA ERROBIKO UPNP-A

REUNION PUBLIQUE PAPI NIVE

Errobiko eta honen ibaiadarretako Uholdeen Prebenitzeko Neurrien Programaren (UPNP) baitan eta Euskal Elkargoan gaiaz arduratzen den zerbitzuarekin lankidetzan, bilkura publiko bat antolatzen dugu.

Aurkezpen hau herritar guziei irekia zaie eta batez ere, Lakako, Lasarteko eta Errobi bazterreko biztanleei.

Ur-gainditzei buru egiteko ezarriak diren dispositiboak deskubritzeko aukera izanen da.

Hitzordua, 2025eko azaroaren 13an (ortzeguna), 19:00etan, Ortzaizeko Denen Etxea gelan.

Dans le cadre du Programme d'Action de Prévention des Inondations de la Nive et de ses affluents et en partenariat avec le service en charge de la thématique à la CAPB, nous organisons une réunion publique.

Cette présentation est ouverte à tous les villageois et plus particulièrement à tous les riverains du Laka, du Lasarteko et de la Nive.

Ce sera l'occasion de découvrir tous les dispositifs mis en place pour mieux appréhender les débordements.

Rendez-vous le Jeudi 13 Novembre 2025 à 19h à la salle Denen Etxea à Ossès.

KULTURA

2025ean kultura proiektu batean parte-hartzen dugu Xiberuko Lexantzüko eta Urepeleko Herriko etxeekin batera, kultura programazio partekatu baten osatzeko.

Karia horretara, heldu den azaroaren 15ean, Kukai dantza taldea errezebituko dugu herrian, "Gelajauziak" ikusgarriarendako.

Denak ongi-etorriak zizte euskal dantzaren goatzera!

Azaroa 15 Novembre

Ortzaize

Ezker pareta - Mur à gauche

Kukai Konpania



Gelajauziak

Ikusgarria

18:00

info : idazkaritza@ortzaize.eus



CULTURE

Nous nous sommes associés aux communes de Lichans et d'Urepel en cette année 2025 pour penser une programmation culturelle partagée.

À ce titre, nous recevons le samedi 15 novembre la compagnie Kukai pour un spectacle de danse "Gelajauziak".

Venez nombreux et nombreuses découvrir leurs danses !

AGENDA



Abenduaren 15etik urtarrilaren 2ra
**HERRIKO ETXEA HETSIA -
FERMETURE DE LA MAIRIE
POUR DÉMÉNAGEMENT**
Du 15 décembre au 2 janvier



**AZAROAK
15
NOVEMBRE
18h**

**Ezker pareta
KUKAI
dantza
ikusgarria**

**AZAROAK
13
NOVEMBRE
19h**

**Bilkura publikoa

Réunion
publique PAPI
Nive**

**AZAROAK
29
NOVEMBRE
16h**

**Maialen Alfaroren
"Goazen oihanera"
haur liburu
aurkezpena
Menta**

**URRIAREN
27TIK
ABENDUAREN
1ERA**

**DU 27
OCTOBRE AU
1ER
DECEMBRE**

**ENQUETE PUBLIQUE PLU i SUD BASSE
NAVARR
HIRIGUNTZA PLANAREN INKESTA
PUBLIKOA**